



Buru Osasunari nahiz buru gaixotasuna duten pertsoneri **begiratzeko modu berriak** bilatu nahi ditugu. **Anima zaitetz ikuspegi berritzailea fokatzera!**

Parte-hartzea

- 18 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute. **Edozein nazionalitate edo biziterri** duten pertsonak har dezakete parte.
- **Adin txikikoek ere guraso edo tutoreak sinatutako baimenarekin** parte hartu ahal izango dute. Baimen agiria dokumentuaren amaieran dago eskuragarri.

Gaia

- Irudiak **Buru Osasunaren ingurukoak** izan behar dute.
- Estigma elikatzen duten irudiak alde batera utzi beharko dituzte parte-hartzaileek; **mitoak ezabatzen laguntzen duten argazkiak** bereziki baloratuko ditugu.
- Lanen **sormena, originaltasuna** eta **kalitate teknikoa** kontuan hartuko ditugu.

Lanen aurkezpena

- Pertsona bakoitzak gehienez **5 argazki** aurkeztu ahal izango ditu.
- **Ez da onartuko aurrez saritua** izan den argazkirik.
- **Ez da onartuko** egileak egin ez duen edo **egilearen jabetzakoa ez den** argazkirik.
- Parte-hartzaileak AGIFESen argazki lehiaketara aurkeztutako argazki guztien **egile-eskubideen jabe bakarra** dela adierazten eta bermatzen du. Gainera, aurkeztutako lanetan hirugarrenen eskubiderik ez dagoela eta hirugarrenen irudi-eskubideekin loturiko erreklamazioez arduratzen dela ziurtatzen du.
- Argazkiak **formatu digitalean** aurkeztu behar dira, eta **ondorengo baldintzak bete behar dituzte:**
 - JPG artxiboa.
 - 300ppp-ko bereizmena.
 - 6 Megabyte (Mb) gehienez.
- Argazkien edizio programekin **aldaketak, ukituak eta argazki-muntaiak** egiteko aukera egongo da.

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina www.agifes.org webgunean

- Argazkiak info@agifes.org helbidera bidali behar dira ondorengo datuekin batera: Izena, Abizenak, NAN zenbakia, e-maila eta telefono zenbakia.
- Parte-hartzaileak aurkeztutako lanaren **izenburua** eta **deskribapen laburra** adierazi behar ditu.

Lanak aurkezteko epea

- Lanak aurkezteko epea **2018ko abuztuaren 17an**, ostirala, amaituko da.

Lan irabazleen aukeraketa

- Agifesen **sentsibilizazio batzordea arduratuko da lan onenak aukeratzeaz**, aldez aurretik adierazitako irizpideen arabera.
- Aukeratutako argazki horiek, lanak aurkezteko epea amaitu eta egun batzuk geroago, Agifesen Facebookeko orrian argitara emango ditugu aplikazio baten bitartez. Horrela, **Facebookeko erabiltzaile guztiek izango dute gogokoen duten irudia bozkatzeko aukera**, lan irabazleak hautatzen laguntzeko.
- Agifesen **sentsibilizazio batzordeak 10 argazki bozkatuenen artean hiru lan irabazleak hautatuko ditu**. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
- **Pertsona bakoitzak ezin izango du sari bat baino gehiago irabazi**, nahiz eta argazki bat baino gehiago aurkeztu eta horietako batek edo gehiagok boto kopuru gehien lortu.
- Bozketak egiteko epea irailaren 7an, ostirala, amaituko da.
- Saritutakoen izenak eta lanak www.agifes.org webgunean argitara emango ditugu. Gainera, irabazleei email edota telefono bidez jakinaraziko zaie irabazi dutela.

Aurkeztutako lanak argitaratzea

- Saritutako lanak www.agifes.org web orrian, elkartearen aldizkarian zein Facebook eta Twitterreko profiletan argitaratuko dira.
- Lehiaketara aurkeztutako argazkiak, betiere egilearen izena aipatuz, edozein momentu edo lekutan, mugarik gabe, **argitaratzeko edota erabiltzeko eskubideak gordetzen ditu Agifesek**.
- **Agifesek ez ditu lehiaketako argazkiak helburu komertzialekin erabiliko**, ezta horiek egileen baimenik gabe hirugarrenei banatuko ere.

Onespena

- Parte hartzearekin batera aurrez adierazitako oinarriak onartzen ditu partaideak.

Sariak

- Sariak ondorengoak izango dira:
 - **1. saria:** 400 euro eta diploma
 - **2. saria:** 200 euro eta diploma
 - **3. saria:** 100 euro eta diploma

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina www.agifes.org webgunean

DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dizugu parte-hartzaileen datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, 'Buru Osasuna Fokatu' lehiaketako partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela, inola ere, hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, edota baliogabetzeko aukera duzu Legearen arabera, eta horretarako gurekin jar zaitezke harremanetan info@agifes.org emailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea. 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bat bidali behar duzu idatziarekin batera).

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina www.agifes.org webgunean

GURASOEN EDO TUTOREAREN BAIMENA

_____ jauna/andreak, _____ NAN zenbakidunak,
_____-ren ama, aita edo tutorea dela baieztatzen du eta
_____-ri baimena ematen dio 'Buruko Osasuna Fokatu' argazki
lehiaketan parte hartzeko, lehiaketa honetarako zehaztutako oinarriak onartuz.

“Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, 'Buruko Osasuna Fokatu' lehiaketako partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela, inola ere, hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldeztuz. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, edota baliogabetzeko aukera duzu Legearen arabera, eta horretarako gurekin jar zaitezke harremanetan info@agifes.org e-mailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea. 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bat bidali behar duzu idatziarekin batera)”.

Data:

Sinadura: